


ALTAMIRAKO AUZO ELKARTEA

Auzoa eraiki zelarik sortu zen elkarte, hau da, 1983. urtean. Zuzendari Batzar baten bidez funtzionatzen du eta kargu hauek borondatezkoak dira, Auzoko Asanblada da azken erabakiak hartzeko gai.

Estatuto ofizialak ba dituzte eta barne funtzionamenduko arautegia ere bai.



Auzoan 103 familia bizi dira, bazkide bezala %90 da. Auzokidea izan behar da bazkide izateko, beste baldintzarik gabe. %25 parteartze aktiboa dutenak dira. Auzokide gehienak gazteak dira 32 urte batz besta dituztelarik. Parteartzaile aktiboari buruz, hauek batz besteko baxuagoa da. Gizon emakumezkoak dira, hauetatik emakumezkoak dira aktiboena.

Aktibitateei buruz:

- Udaletxeko kultur Batzordean parte hartzen dute.
- Gizarte-Ongizate Batzordean ere bai.
- Gazteen Batzordean baita.
- Kirol taldea ere badute.
- Atsedeen denboraldiko taldea, honek sukaldaritzako ikastaroak antolatzen ditu, baita gimnasia eta egungo gaiei buruzko hitzaldiak ere.
- Gazteen taldeak berriz, gaztetxoekin zenbait txango eta joku antolatzen ditu, rifen bidez dirua lortuz ekintzak burutzeko.
- Herriko zenbait festetan ere parte hartzen dute.

Harrez gain, drogaren aurkako burruka latza eta luzea eraman dute, hori dela eta Droga Trafikoaren Aurkako Komisioarekin harremanetan daude. Auzoan zenbait trafikante bizi zirela eta mobilizazio desberdinak burutu dituzte ahalik eta hauek kanporatzea lortu arte. Esan beharrezkoa da, mobilizazio horietan asanblada ardatz harturik auzokide guztiek



parte hartu dutela eta Guardia Civilaren erasoak jasan behar izan dituztela. Heuren iritziz, burruka hori dela eta, oraindik ere zenbait instituziok faktura pasatzen ari zaizkie.

Auzoko arazorik latzenak droga trafikoarena eta etxebizitzaren eraikuntzako akatsak dira.

Urbanismo mailan auzoa, Eusko-Jaurlaritzaren eskutik dago, beraz, "Delegación Territorial, Ministerio de la Vivienda" delakoaren esanetara. Azken erakunde honekin oztopo handiak dituzte, zeren, Eusko-Jaurlaritzak Udaletxeari igorri nahi dizkio etxeak, baina, eraikuntzako akatsak direla eta, auzokideen informazioak jaso ondoren, Udaletxeak ez ditu hartu nahi bere gain ahalik eta arazoak konpondu arte.

Aipaturiko akatsak direla eta auzokideak informazioa luzatu die Udaletxe eta Eusko-Jaurlaritzari, "Colegio Oficial de Abogados" delakoaren informea abogatuaren bitartez bidalia dute 88. Ekainaren 15-ean, oraindano, Eusko-Jaurlaritzaren erantzunik jaso ez dutelarik, hori dela eta, duela 2-3 hilabete epaitegira jo dute. (Aipatzekoa da informe hori auzokideek ordainduz dela).

Halaz ta guztiz ere, delegatuarengana joanez jarraitzen dute, honek auzokideen izenean hurbiltzen zaiona errezibitzen du baina, Alkatearekin ez du hitzik ere egin nahi.

Bestalde, trafikanteak bizi ziren sei etxe-bizitzak, duela urteterdi hutsik dagoenak eta hauei dagozkien komunitate gastuak (300.000 pezeta) egun komunitatearen bizkar daudenak, Jaurlaritzari igorri zieten, hauengandik oraingoz sosik jaso ez badute ere.

Beste arazo bat zera da, hutsak dagoen aipaturiko etxe bizitzak nori adjudikatu, auzokideek heuren esku edo Udaletxearenean ezartzea eskatzen dute, dirudienez, delegatuak Udaletxeari eginkizun horretarako baimena luzatu dio.

Finantziarioa auzokideen gain dago, Udaletxearen dirulaguntzak gehituz.

Auzo-Elkartearen eraikuntza auzo-lanean burutu dute, Udaletxeak lanabesak eta materialak ezarriz.

Etorkizunari begira, goitik behera eror ez daitezela, behar larria da etxe-bizitzaren konponketa, Eusko-Jaurlaritzari bitarteko ekonomikoak eskatu eta lehenbailehen lanak burutzea premiazkoa da.

*Rexu Mazusta "Lezoko elkarte sozialak"
1990ko otsaila*